

## Genero Indarkeriaren inguruan solasean

1. Norbaitek indarkeria jasaten duenean, zergatik kostatzen zaio onartzea eta laguntza eskatzea?

Lehenik eta behin argitu behar genuke indarkeriaren definizioa oso zabala dela. Indarkeria fisikoa psikologikoa baino errazago detekta daitekeela esan dezakegu, baina horrek ez du esan nahi bata bestea baino arinagoa denik. Hortik abiatuta, sarritan zaila da indarkeria jasaten ari garenaz jabetzea, kontziente izatea. Onartzea, alegia. Eta kontziente ez bagara, normaltasun bihurtzen da egoera hori. Laguntza eskatzeko lehenengo pausoa da arazo bat dugula onartzea. Egoerak duen zama emozionala ere hor dago: lotsa, porrot egin izatearen sentimendua, bakardadea...

2. Zerk sortzen ditu indarkeria erasoak?

Emakumeen aurkako indarkeria arazo politiko, ekonomiko eta soziala da. Bere horretan kokatu behar dugu, osotasunean ikusi behar da zerbait aldatu nahi badugu.

3. Nork nozitzen du indarkeria erasoak, generoz, adinez eta eremu sozialari dagokionez?

Edonork nozitu dezake, baina orain arte ditugun datuen arabera, emakumeak dira gehienak. Edozein eremu sozialetan gerta daiteke, nahiz errekurso gutxien dituzten artean sarriago gauzatzen den.

4. Zein perfil izan ohi du erasotzaileak?

Kontrolatzaile handia eta biktima bere menpean dagoela uste duena, gutxiago dela uste duena.

Kaltetua, biktima, erabat menpean eduki beharra sentitzen du; bere dirua, lagunak, irteerak, denborak, telefonoa, dena kontrolpean. Bere buruarekin duen ziurtasun eza konpentsatzeko. Bestearengan sortzen ari den sufrimendu edo gaixotasunak ez dio axola, ez du aintzakotzat hartzen. Irainduz gozatzen du, mehatxatuz, eta gertatzen denaren ardura besteari leporatuz. Ezezkoak ezin ditu jasan bere bizitzan, hau da, frustraziorako kemen falta.

5. Zein motatako erasoak gertatzen dira: fisikoak, psikologikoak...? Zein bitarteko erabiltzen dira? Ba al du teknologia berrien hedatzeak honekin zer ikusirik?

Denetatik. Fisikoak erraz ikus daitezkeenak dira, sarritan biktimak horrelakorik gertatu denik ukatzen duen arren, beldurra medio. Ondorioz, osasunean eragina izaten du, antsietatea, estres kronikoa, tentsio igoera, buruko edota gorputzeko minak. Adikzioen bat ere ez da harritzekoa, alkohola edo pilulak.

Psikologikoak aldiz oso ezkutukoak, isilekoak izan ohi dira, sufritzen duena, osasunaren aurkakoak direla konturatzen ez delarik. Nora zoaz, norekin, zertara, nork deitu dizu, nori

deitu diozu , zergatik begiratu diozu horri, ez dut beste mutilei kasu egiterik nahi, ez al duzu ba nirekin nahiko? Ez duzu ezertarako balio. Esaterako. Guzti honek ikasketetan, lanean, bizitzako esparru guztietan eragina izan dezake, eragin ezkorra, goibela, isolatua gelditzen baita.

Eraso sexualak ere ohikoak dira.

Teknologia berriek, behar den moduan erabiliak badira, ez lukete kalterik egin behar. Ikerketek diotenez, gero eta ugariagoak izaten ari dira pertsonen askatasunaren kontrako ekimenak; aipatutako kontrolak areagotzen laguntzen dutelako alde batetik, eta publizitate eta programa desegokiak bazter guztietara iristea bideratzen dutelako bestetik. Nola erabili eta zertarako behar ditugun izan daitezke hausnarketarako gaiak.

6. Zein datu publiko ditugu eskura, Beasain eta Gipuzkoa mailan, aurreko galderen inguruan?

Estatu mailan azken hamarkadan 700 emakume baino gehiago izan erail dituzte. Joan den urtean 43, horietatik 7 izan ziren erasotzailearen aurka salaketa jarri zutenak. Beasainen, 2012an 17, eta aurten abuztua bitartean, 11 izan dira denuntzia ezarri dutenak.

7. Dirudienez, Gobernu zentralak sortu behar duen estatistika berriari genero indarkeria gisa hartzeko , gutxienez, egun bateko ospitalizazioa beharrezkoa izango da. Zer irizten diozu honi?

Batetik, indarkeria fisikora mugatzen den neurria dela eta bestetik, asko direla ospitalera iristen ez direnak, bidean geratzen direnak.

8. Zein prozedura jarraitu behar da era honetako kasu bat salatzeko, jakinarazteko?

Ertzaintzan parte eman beharko litzateke eta testigu moduan aurkezteko prest egon.

9. Zein da konponbidea? Zein neurri har daitezke?

Konponbidea heziketa eta kontzientziazioetik hasten da. Gure inguruan begiratu besterik ez dugu gizarateak oraindik ere zein mezu eta eredu markatzen dizkigun ikusteko. Eta tamalez, eredu hauek zein barneraturik ditugun ikusteko. Ezin dugu ahaztu gure ondorengoak (haurrak) gure jarrera eta ekintzen isla izango direla.

NEURRIAK: Ertzaintzan salaketa, medikuarengana joan bere txostena egin dezan hala badio, eta Udalean Ongizate edo Berdintasun Saileko teknikariek hitz egin, egon daitezkeen laguntzen berri jakiteko. Antolaturik dauden emakume Elkarrekin harremanetan jarri laguntza, konpainia eske.

EGILEAK:

Galderak: 4.DBH mailako eta Batxilergoko ikasleek

Erantzunak: Beasaingo Udalako Berdintasunaren Sailaren arduradunak